


BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroek gure produktua aukeratzeko, hainbat arrazoi garatu ditugu:

- Janzteko osagarrien (pultsera, zintzilikari...) artean berezia izango da, gure ongizatea bermatzen duen bakarra delako. Banakoak eta lagunak seguru sentitzea ziurtatuko duenez, oso erabilgarria izango da.
- Biztanleria guztiari zuzenduta egongo da. Edonork erabiltzeko gai izango da. Esate baterako, nahiz eta gehienbat neska taldeek erabiliko duten, beste hainbat egoeratarako ere erabilgarria izango da: guraso batek bere seme-alabei eman diezaiekete, lagunak edo familiaren laguntza behar duten agureek eduki dezakete nahi izanez gero, etab...
- Funtzionamendu erraza izango du: hiru botoi izango ditu, alboetan bi botoi eta erdiko handi bat.
- Eraso edo arrisku baten aurrean, pultseraren alde bakoitzean larrialdi botoiak kokatuko dira, biak batera sakatzeko larrialdi zerbitzutara deia egingo dutenak (112-



ra).

- Nahiz eta mota hauetako pultserak jada existitzen diren, ez dira behar bezala publikizatu eta ez dira bezero askorengana iritsi, beraz gure bezero posibleentzat ideia oso berritzailea izango da. Gure pultsera zabaltzeko *marketing* programa zehatza jarraituko dugu (geroago zehaztuko dugun bezala) sare sozialen bidez. Horrela, espero dugu ZANN pultserak arrakasta handiagoa izatea, lehenago merkatura atera direnak baino.

- Gure balioa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa izango da; prezio onean salduko dugu (29'95€) eta sarrera ekonomikoak edozein izanda ere denentzat eskuragarria izango da, eta era berean, beste edozein produktuk ematen ez dizkizun segurtasun prestazioak eskaintzen ditu gure produktuak.
- Aplikazioa ere ulertzeko erraza izango da. Talde bakoitzak erabiltzaile jakin bat izango du eta talde bakoitzak sare pertsonalizatua izango du ere. Hau da, talde jakin batean, bakarrik talde horretako erabiltzaileen lokalizazioa agertuko da, ez pultsera duen mundu guztiarena.
Aplikazioan, mapa bat egongo da (Google Maps-en oinarrituta).
- Diseinu eta kolore askotarikoak ekoiztuko ditugu, bezero guztien gustukoak izateko:

